

**Banku hartzekodun nagusiekin egin du hitzarmena****EROSKI-K HITZARMEN BAT EGIN DU  
BANKUEKIN ZORRA BIRFINANTZATZEKO**

- **Konpainiak etorkizun finantzarioa argitu du, eta bere negozio plana garatzeko bidea ireki**
- **Orain arte, EROSKIak aurreko akordioan emandako hitza bete du osorik, zeina indarrean baitago aurtengo uztailera arte; hala, finantza entitateekin duen zorra 731 milioi euro gutxitu du 4 urtean; ia 1.800 milioi euro izan dira 2010etik**
- **Hitzarmen berriarekin, bi zatitan banatu dute zor finantzarioa, taldearen negozio planera egokitzeko**
- **EROSKIren *ebitda* 250,7 milioikoa zen 2018 urtean, eta %1,3ko salmenta igoera izan du EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan.**

**Elorrio, 2019ko martxoaren 6a.-** [EROSKI](#) hitzarmen bat egin du gaur arratsaldean zorraren %75 biltzen duten banku entitateekin hura birfinantzatzeko; guztira, 1.540 milioi euro inguru. Konpromiso horrekin, 2024ko uztailaren 31ra arte zabaldu du bere etorkizun finantzarioa

Agustin Markaide EROSKIko presidentek balio handia eman dio zorra birfinantzatzeari; izan ere, *"erakusten du finantza entitateek konfiantza dutela EROSKIren proiektuarekin; negoziazio prozesu osoan erakutsi dute konfiantza hori"*. Markaidek gogorarazi duenez, *"EROSKIak aurreko akordioko konpromiso guztiak bete ditu, zeina indarrean baita datorren uztailaren 31ra arte; hala, lau urte honetan, 731 milioi eurotan gutxitu dugu zorra, eta 1.800 milioi euro izan dira 2010etik"*. Horrez gain, hauxe nabarmendu du: *"Hitzarmen honekin, EROSKIak argitu du bere etorkizun finantzarioa, eta, horri esker, bere negozio plana garatzen jarraituko du, hau da, 'zurekin' eredia, hain emaitza onak ematen ari baita Iparraldean. Eremu horretan egin ditugu eraldaketa gehienak, eta hor indartu da gure lidergoa. Hala, eredu horren arabera, elikadura kontsumo osasungarriagoa eta arduratsuagoa erraztea da asmoa, ildo horretan konpromiso sendoak hartuz"*.

EROSKIak hitzarmena zabalduko du gainerako finantza entitate hartzekodunetara, eta ziur da prozesu osoa datozen hiletan amaituko dela.

Akordioari esker, EROSKIak zor maila normalizatuko du konpainiak *ebitda* positiboa sortzeko duen gaitasunera; azken urteetan, egonkortasun handia erakutsi du alor horretan.

Zehazki, hitzarmenarekin, bi zatitan banatuta gelditu da EROSKIren zorra, taldearen negozio planera egokitzeko, eta 5 urterakoa izango da. Zati bat

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*amortizagarria* da, 1.000 milioi euro ingurukoa, eta, interes tasari dagokionez, EURIBORRA+%2,5 izango da. Beste zatia, berriz, *Bullet* zati bat da, 540 milioi euro ingurukoa eta %0,5eko gehienezko interes tasa izango duena.

Horrez gain, gaurko lerro operatiboei eutsiko die; 372 milioi euro inguru darabiltza EROSKI bere ohiko jarduerarako.

Hala berean, akordioan sartzen da EROSKI taldeko menpeko enpresen berrantolaketa sozietarioa egitea. Berrantolaketa negozio eremuen arabera egingo da; eta horrela, emaitza eta baliabideak optimizatu ahalko ditu.

EROSKIko finantza zuzendari Jose Ramon Anduagak garrantzitsutzat jo du akordioa: "*Ziur nago EROSKI emandako hitza bete ahalko duela datozen urteetan, orain arte egin dugun bezala, eta bere plan estrategikoarekin jarraitu*". Era berean hauxe gogorarazi du: "*EROSKI orain lortu du akordio hau, urtea 250,7 milioi euroko ebitdarekin amaitu duen honetan, zeina aurreko urtekoa baino 9 milioi handiagoa izan baita. Nabarmenezkoa da %1,3ko igoera izan duela EAEko, Nafarroako, Galiziako eta Balearretako salmentetan, non, hain zuzen, oso hedatua baitago Zurekin eredu komertzialaren sarea*".

Bestalde, aurreko akordioan jasota zegoen kooperatibaren merkantilizazioa baztertuta gelditu da oraingoan. Horrez gain, ez da nahitaz desinbertsiorik egin beharko.

## **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak; horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide gora.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)